



LAN TALDEAREN BILERA

DATA: 2014/04/08

BILERA ZENBAKIA: 9

ORDUA ETA LEKUA: 19etan Udaletxean

PARTEHARTZAILEAK: 5 parte hartzaile (3 emakume eta 2 gizonezko).

EGINDAKO LANAREN LABURPENA

LANDUTAKO GAI ORDENA

1.- Herriko zerbitzuen zerrenda eta informazioa bildu :

Azaltzen da egindako zerrenda eta baita ere triptiko moduan egin den zirriborroa. Adosten da ordena eta aldi berean formatuaren inguruan gogoeta bat egitea erabakitzen da. Gutxieneko kalitatea bat izan beharko duela uste dugu baina formatuarekin asmatu nahi dugu ahalik eta erabilben errezena izateko herritarren aldetik. Herriko elkarte guztiak jartzea erabakitzen da eta beraiekin ere hitz egingo da aurretik jakin dezaten.

2.- Maiatzak 9ko hitzalidia : batetik aurkezten da egun horretan banatuko den esku horri bat. Zalantzak ditugu portadarekin oso iluna delako agian eta diseinuari buelta bat emango diogu. Edukiak onartu egiten dira. Bestetik, egun horretan erabilio den gidoia eta diapositibak aurkezten dira. Erabakitzen da ere ohar prentsa bat prestatzea eta tokiko komunikabideei pasatzea

3.- Jubilatuen elkarte : informazio gisa esaten da lortu direla 4 kide berri gehiago izatea eta gazteagoak


4.-Kaleratze protokoloa : Herriko ostatuaren prezioak altuak direnez eta 15 egunak eskaniz diru asko suposatuko duela kontuan harturik, proposatzen da gehienez 3 egunez ostatuan alojamentua eta mantenua eskaintzea. Aldi berean, egokia ikusten da, kaleratze bat ematen denean, udalak gestioak egitea herrian dauden etxe hutsekin, hauek erabiltzeko.

5.-Elikagai kanpaina : Legorretan kanpaina berezi bat egin dute elikagaiak jasotzeko. Momentuz hemen ez da beharrezkoa ikusten eta orain arte dagoen sistema uztea erabakitzen da.

6.-Arropa bilketa : udara hurbiltzen ari denez, arropa kanpaina bilketarena proposatzen da. Ordiziako erroperoarekin hitz egingo da eta beraiek diotenaren arabera, erabakiko da zer egin.

Azkenik, hurrengo bilera, maiatzaren 20an izango da.

ETXEKO- LANAK	NOIZKO?	ZEINEK?
Hitzaldiko ohar prentsa	Hitzaldia aurretik	I.U.
Arropa bilketa – erroperora deitu	Maiatzaren 20an	I.U.



Arrugas pelikula	Maitzaren 20an	E.M.
Kaleratze protokoloa	Maiatzaren 20an	M.E.
Harrera gida	Maiatzaren 20an	E.M.

HURRENGO BILERA

Hurrengo bilera, maiatzaren 20-an egingo dugu, asteartea arratsaldeko 7tan Udaletxean.
Gai ordena:

- Hitzaldiaren ebaluaketa
- Kaleratze protokoloa
- Arrugas pelikula
- Harrera gida
- Arropa bilketa
- Hauren babeserako protokoloak: hezkuntza eta osakidetza